ASTEASUKO UDALERRIKO 2 ETA 3 POLIGONOETAKO LANDA-LURZORUKO LURZATIAK MUGATZEKO XEDAPEN TEKNIKOEN AGIRIA

SARRERA

Asteasuko udalerriko landa-lurzatien mugak nahasgarriak dira maiz, eta ez dute definizio kartografikorik. Sarritan, muga horien kartografia ez dago behar bezala eguneratuta.

Nekazaritza eta basozaintzako ustiategietako titularren batez besteko adina altua da, eta belaunaldien arteko erreleboa eskasa da. Errelebo-falta horrek partzela-mugei buruzko ezagutza galtzea dakar. Arestian azaldutako egoerak akatsak eta zailtasunak eragiten ditu maiz landa-lurzatiei eragiten dien edozein ekintzatan; beraz, guztiz komenigarria eta beharrezkoa da Asteasuko udalerriko la landa-lurzatien definizio kartografikoa eguneratzea.

Azken batean, landa-partzelen mugak ezagutzea funtsezkoa da finka horiek kudeatzen jarraitu ahal izateko.

HELBURUA

Lanen helburua hauxe da: mugakideen arteko akordioaren bidez eta Asteasuko udalerriko 2 eta 3 poligonoetako lur- zatien altxatze topografikoaren bidez, landa-lur-zatiak mugatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Katastro Zerbitzuan informazioa zuzendu ahal izango delarik.

Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia· Sustapeneko, Turismoko eta Landa lnguruneko Departamentuak lagunduko du diruz, eta, beraz, *Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-lurzoruaren lursailak mugatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdian* adierazitakoa bete beharko da (GAOn argitaratu zen 2025eko ekainaren 11ean).

SINAa78c360b-6bea-47cd-be0f-81bad981d504

METODOLOGIA

Helburua betetzeko, fase hauek aurreikusten dira:

- Informazioa biltzea
- Informazioa prestatzea eta jabeekin bilera egitea
- Akordioen jarraipena eta arbitrajea dagokion kasuetan egitea eta dokumentazioa jasotzea.
- Datuak jaso eta prozesatzea
- Lur sailen jabeen partaidetzaren trazabilitatea bermatzea
- Amaierako dokumentuak entregatzea

INFORMAZIOA BILTZEA

Kontratistak zehaztu beharko du zer informazio-iturri erabiliko diren proiektua hasteko behar diren datuak izateko.

INFORMAZIOA PRESTATZEA ETA JABEEKIN BILERA EGITEA

Kontratistak jabeei entregatu beharreko fitxak eta planoak egiteko bildutako datuei egingo zaien prozesua zehaztuko du. Era berean, zehaztuko du nola azalduko zaizkien jabeei proiektuaren helburua eta faseak, eta zer informazio emango zaien mugakideen arteko akordioa lortzeko.

AKORDIOEN JARRAIPENA ETA ARBITRAJEA DAGOKION KASUETAN EGITEA ETA DOKUMENTAZIOA JASOTZEA

Kontratistak jabeei egingo dien jarraipena zehaztuko du, mugakideen arteko akordioak lortzeko, eta informazioa nola eman beharko den aztertuko du.

PARTE-HARTZEAREN TRAZABILITATEA

Kontratistak, kasu bakoitzean, dokumentu bat aurkeztu beharko du jabeen partaidetzaren trazabilitatea ziurtatzeko, *Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-lurzoruaren lursailak mugatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdian* 1.1 eranskinaren antzera (GAOn argitaratu zen 2025eko ekainaren 11ean).

DATUAK JASO ETA PROZESATZEA

Kontratistak mugak nola altxatuko dituen zehaztuko du, jabeekin batera. Altxatzearen ondoren, jasotako datuak nola prozesatu eta editatuko dituen azalduko lur-zatiaren UTM ETRS89 sisteman geoerreferentziatutako planoa lortu arte.

AMAIERAKO DOKUMENTUAK ENTREGATZEA

Kontratistak zehaztuko du zer dokumentazio entregatuko dion honako hauei:

SINAa78c360b-6bea-47cd-be0f-81bad981d504

- Udala.
- Jabeak.
- Katastro Zerbitzua.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Habitaten Kudeaketako Zerbitzua.

Gutxienez, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

Udalari, katastroko poligonoka banan-banan egindako lan guztia, bai formatu digitalean (GIS) bai 1/5000 eskalan dagoen azken ortofotoaren gainean inprimatuta, UTM koordenada zerrenda batekin aurkeztuko da, mugarrien eta bildutako guneak ETRS89 erreferentzia sisteman.

Jabe bakoitzari berriz, lursailen plano topografikoarekin koadernatutako liburuxka bat non mugarri eta puntu garrantzitsu guztiak agertzen diren, zenbakituta eta ortoargazki bat, bere jabetzako lurrak nabarmenduz. Gainera, dokumentu bat erantsiko da, bertan marraztutako esparru bakoitzerako, katastroko partzela, lortutako azalera eta UTM ETRS89 koordenatuak zehaztuko dira, bai mugarrienak, bai jabeek garrantzitsutzat jo dituzten puntuenak ere.

Unai Lasheras Azkune
Udal Arkitekto teknikoa

EKS | CSV: SINAa78c360b-6bea-47cd-be0f-81bad981d504
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01410

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	06 LANDA LURZORUKO LURZATIAK MUGATZEKO XTA
CSV/EKS:	SINAa78c360b-6bea-47cd-be0f-81bad981d504

Sinatzailea 1 / Firmante 1: UNAI LASHERAS AZCUNE - 34099856X
Data / Fecha: 2025/09/16 14:41:20